getxoBerri

Getxo bizi ezazu

@GetxoUdala
#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1889 zk.
www.getxo.eus

Azaroak 19
>> Azaroak 29

2026

/ Nabarmentzekoak

> Urteko diru-laguntza hiru lankidetza-erakunderi (2. or.)

> "Promesarik txikiena", umorea, emozioa eta zuzeneko musika (3. or.)

> Raspasek antolatuko du berriro Espainiako Itsasoko Arraun Txapelketa, 2027an (4. or.)



*Arantza Martínez Erostarbe, Euskara Saria 2026 (3. or.)

A- GENDA

Elkarretaratzea. Hilak 25, asteazkena, 19:30ean, Bizkaia Zubia plazako puntu lilan, A25a dela eta. Antolatzailea: Gizatiar.

Kontzertu solidarioa. Fair Saturday. Hilak 28, larunbata, 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokian, Ariel Ramirezen "Meza kreolea".



Galeako Gotorlekurako bisitak abenduaren 4tik urtarrilaren 6ra

Galeako gotorlekua abenduaren 4tik urtarrilaren 6ra bitartean bisitatu ahal izango da, doako ibilbide gidatuen bidez. Ibilbide horietan, XVIII. mendeko eraikuntza honen ezaugarri arkeologiko eta arkitektonikoak eta bere historia ezagutaraziko dira.

Bisitek 60 minutu inguruko iraupena izango dute, eta ostiral, larunbat, igande, jaiegun eta jai-zubietan egingo dira, bi txandatan: 11:30etik 12:30era eta 16:30etik 17:30era. Ibilbideak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, eta gehienez 20 laguneko edukiera izango dute saio bakoitzeko, espazioaren ezaugarriek eta obren presentziak baldintzatuta.

Ibilbidean zehar, gotorlekuaren historiari eta ezaugarri arkitektonikoei buruzko azalpenak emateaz gain, bertaratutakoek material grafikoak eta berregite historikoak ere izango dituzte, gotorlekuaren erabilera eta bilakaera testuinguruan jartzeko.

Aldez aurreko izen-ematea www.puntabegonagetxo.eus web orrialdearen bidez egin beharko da.

BISITEI BURUZKO INFORMAZIOA

- **Aldia:** 2026ko abenduaren 4tik 2027ko urtarrilaren 6ra arte.
- **Egunak:** ostiral, larunbat, igande, jaiegun eta jai-zubietan.
- **Ordutegiak:** 11:30etik 12:30era eta 16:30etik 17:30era.
- **Iraupena:** 60 minutu.
- **Edukiera:** 20 pertsona gehienez saio bakoitzeko.
- **Hizkuntzak:** euskara eta gaztelania.
- **Prezioa:** dohainik.
- **Aldez aurreko izen-ematea:** puntabegonagetxo.eus webgunearen bidez.

*Izena eman dutenei eskatzen zaie, joaterik ez badute, erreserba bertan behera utzi dutela jakinarazteko, plazak eskuragarri egon daitezen.



Omenaldia Niko Etxarti Iparra Galdu Gabe Jardunaldietan

Niko Etxarten kontzertu-omenaldia izango da larunbatean, hilak 21, bere 50 urtetik gorako ibilbideari errekonozimendua egiteko, Iparraldea Getxora hurbiltzen duten eta aurten 25 urte beteko dituzten Iparra Galdu Gabe Jardunaldien barruan. Eszenatokian Hapa-Hapa eta Xabi Leon, Anje Duhalde, Süne Xabaltx, Pello Artabe, Anne Bidalun, Irantzu Garamendi, Ainhoa Aranburu eta Robert Larrandaburu & Dominika Eiheraberri ere izango dira. Hitzordua 20:00etan izango da eta ETBek grabatuko du, aurrerantzean eskaintzeko.

1743ko eraikina

Gotorlekua (historikoki Printzearen Gaztelua bezala ezagutua) Jaime Sycre koronelak proiektatu zuen eta 1743an eraiki zen gotorleku militar gisa, Abrarako itsas sarbidea babesteko. Datu historikoen arabera, kanoiek disuasio-elementu gisa funtzionatu zuten.

Eraiki aurretik, XVI. mendetik zaintza-dorre edo talaia zahar bat zegoen bertan, Bilboko itsasadarrerako sarrera eta merkataritza-ibilbideak zaintzeko.

1782an, Bilboko Kontsulatuak bere kokalekuan itsasargi zirkular bat eraikitzea agindu zuen. Farozaina bandera sistema baten bidez komunikatzen zen Bilboko hiribilduarekin. XIX. mendearen erdialdean dorre berri batek ordezkatu zuen, eta 1905era arte funtzionatu zuen.

Frantziako tropek okupatu zuten 1795ean eta triskantza larriak jasan zituen tropa ingelesen erasoengatik 1812an eta, ondoren, 1836an, gerra karlistetan. 1947an, gotorlekua Getxoko Udalaren esku utzi zuten, bere funtzio militarra behin betiko galduz.

A- GENDA

AZAROAK 19 OSTEGUNA

Ipuniaren orduan. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Kutxa txiki magikoak" (euskaraz), Bego Alabazanekin. 3-6 urte. Izena doan emateko: www.getxo.eus/apuntazaitez

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Milagros Mumenthalerren "Las corrientes" (gazteleraz). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

AZAROAK 20 OSTIRALA

Auzoka. Haurrentzako eta familientzako jolasak eta kaleko jarduera parte-hartzaileak. 17:00etatik 20:00etara, musika Santa Eugenia plazan eta "Zentzu bidaia" Aldapa parkean.

Santa Cecilia kontzertua. 18:00etan, Muxikebarrin, Musikaliaren emanaldia. Gonbidapenak agortuta.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Promesarik txikiena" (euskaraz), Infinitu dramarekin. 15 euro.

Zine-Kluba. 20:30ean, Romo Kultur Etxean, Isabel Coixeten "Tres adioses" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

AZAROAK 21 LARUNBATA

Kontzertu gidatua. 17:00etan eta 19:00etan, San Nikolas Ikastolan, Andres Isasiren Musikalia bandarekin. Gonbidapenak eskatzeko: www.musikaliaelkartea.eus.

Antzerkia. 19:00etan, Muxikebarrin, "La importancia de llamarse Ernesto" (gazteleraz), Compañía Joven Sin Remilgosekin. Sarrerak agortuta.

Kontzertua. Iparra Galdu Gabe. 20:00etan, Muxikebarrin, "Niko Etxarti omenaldia", Niko Etxart eta Hapa-Hapa Taldearekin. 10 euro.

Hitzaldia. 11:00etan, Algortako Erretiratuen Elkartearen egoitzan (Juan Bautista Zabala kalea, 6, behea), "Románico en época medieval". Hizlaria: Sylvia Cárcamo. Antolatzailea: AJANE.

AZAROAK 22 IGANDEA

Zinematxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Super Charlie" (gazteleraz). Adin guztiak. Sarrera: 2,50 euro.

Haur ikuskizuna. Pailazoak. 18:00etan, Muxikebarrin, "Fly me to the moon", Leandre Clownekin. 10 euro.

Antzerkia. Emakumeak eszenan. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Invita la casa" (gazteleraz), Sin Red Teatroarekin. 4,50 euro.

AZAROAK 23 ASTELEHENA

Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko VIII. Jardunaldiak. Hitzaldia. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "Las violencias invisibles. Cómo detectarlas y abordarlas" (gazteleraz), Bizitu elkartearen eskutik. Antolatzailea: Gizatiar.

AZAROAK 24 ASTEARTEA

Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko VIII. Jardunaldiak. Antzerkia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Osadas txou" (gazteleraz), "Las paralelas" konpainiarekin. Antolatzailea: Gizatiar.

Hitzaldia. 18:00etan, Algortako Erretiratuen Elkartearen egoitzan (Juan Bautista Zabala kalea, 6, behea), "Senderismo cultural por Zugazarte". Hizlaria: Iñaki Fernández. Antolatzailea: AJANE.

AZAROAK 25 ASTEAZKENA

Versadas. Poesia kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Silvia Plath autorearen obraren inguruan (gazteleraz).

Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko VIII. Jardunaldiak. Elkarretaratzea. 19:30ean, Areetako Puntu Morean (Bizkaia Zubiaren plazan) A25, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta. Antolatzailea: Gizatiar.

AZAROAK 26 OSTEGUNA

Irakurketa antzeztuen tailerra. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Recordando a Lorca. Yerma." (gazteleraz), Utopiaren eskutik.

AZAROAK 28 LARUNBATA

Kontzertu solidarioa. Fair Saturday. 18:00etan, Berreroslearen parrokian, Ariel Ramirezen "Misa criolla", Ondarreta abesbatzarekin, Andoni Martínez Barañano (tenorea), Santi Gorostiza (gitarra eta requintoa), Javier Oyarzabal (pianoa) eta Ander Lekue (perkusioa). Solidaridad Internacional Trinitarioaren alde.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF >

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.
Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo.
e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus
Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL.
Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U.
Banaketa: Joal Express, S.L.
Gordailu legala: BI-388-87



Ereagako igogailua zarratuta otsailera arte

Ereagako igogailu publikoa zerbitzutik kanpo egongo da datorren astelehenetik, hilak 23, eta datorren urteko otsailaren amaierara arte, instalazioaren funtzionamendua eta baldintzak egokitzeko jarduketek eta beste lan osagarri batzuek aurrera jarraitzen dutelako. Hala, hainbat elementu aldatuko dira, eta, besteak beste, lanak egingo dira euri-ura kanporatzea errazteko eta inausketa gauzatuko da eta adarrak kenduko dira, horiek igogailuko bidearen gainean erortzeko arriskua murrizteko.

Altzariak etxean jasotzeko zerbitzuaren telefono berria

Altzariak etxez etxe jasotzeko udal zerbitzuak telefono berria dauka: **94 466 01 81**. Udalak informazio orri bat banatuko du aste honetako ostegun eta ostiralean, hilak 19 eta 20, herriko etxeen artean, non aipatutako zerbitzuaren telefono berria agertzen den. Zerbitzu honen bidez, jakina denez, egoera onean dauden eta beste pertsona batzuek berrerabil ditzaketen altzariak etxetik erretiratzen dira, doan. Etxebizitzatik kendu ondoren, Emaúsek prezio eskuragarrian jartzen ditu salgai laneratze enpresa horrek dituen bigarren eskuko dendetan.



Urteko diru-laguntza hiru lankidetza-erakunderi

Udalak Lankidetza arloko hiru erakunderentzako urteko diru-laguntzak onartu ditu. Zehazki, Euskal Fondoak 53.550 euro jasoko ditu, *El Salvadorren berdintasun-gakoa duen tokiko gobernantzarako bidean* izeneko proiekturako. Bestalde, ATFAL elkarteak 37.800 euro jasoko ditu, Aljeriako Tindufeko kanpamentuetan dauden saharar errefuxiatuen aldeko proiektuari jarraipena emateko, hain zuzen ere, haien elikadura, minusbaliatuen bizi-kalitatea eta udan adingabeak hartzeko ekimena bermatzeko. Azkenik, Zabalketak 26.250 euro eskuratuko ditu *SolidaridUP* proiekturako, tokiko eta herrialde pobretuekin sentsibilizatutako herritarren alde, ekimen solidarioren bidez.

Emakumeen aurkako indarkeriaz VII. Jardunaldiak

Azaroaren 23tik 25era emakumeen aurkako indarkeriari buruzko VII. Jardunaldiak egingo dira, Gizatiar elkarteak antolatuta, Udalarekin lankidetzan.

Astelehenean, hilak 23, 18:30ean, Romo Kultur Etxea-RKEn, *Las violencias invisibles. Cómo detectarlas y abordarlas* hitzaldia egingo da (sarrera librea). Asteartean, hilak 24, 19:00etan, *Osadas Txou* antzeztuko da RKEn ere (sarrera doan). Eta hilaren 25ean, asteazkena, 19:30ean, Bizkaia Zubiko plazan, elkarretaratzea izango da A25a dela eta.
Informazioa: 688 714 023 / 94463 50 12.

"Bizkaia repara" bonoak

Getxoko 10 establezimenduk parte hartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren *Bizkaia Repara* deialdian, hondakinen sorrera prebenitzeko eta kontsumo jasangarri eta arduratsuko eredu bat sustatzeko, produktuen konponketa sustatuz. Bonuak trukatzeko sistema batean oinarritzen da, eta 10 euroko deskontua eskaintzen die kontsumitzaileei bigarren eskuko artikuluen erosketetan eta 20 euro edo gehiagoko konponketa-zerbitzuetan, atxikitako establezimenduetan. Bonuak ordaintzeko unean eskatzen dira. Informazioa: https://labur.eus/hinaqqxi



Abian da Erakusleihoen Lehiaketa

Getxoko Erakusleihoen Lehiaketaren 36. edizioan parte hartu nahi duten tokiko negozioek izena eman ahal izango dute abenduaren 9ra arte. Erakusleiho fisikoaren eta erakusleiho birtualaren modalitateetan parte hartu ahal izango dute. Gainera, sari bereziak emango zaizkie *Erakusleiho jasangarrienari* eta *Teknologia berriak hobekien erabiltzen dituen erakusleiho birtualari*. Profesionalen epaimahai batek zehaztuko ditu ezarritako 40 sariak merezi dituzten establezimenduak. Publikoaren erakusleiho fisiko gogokoenaren bozketa GERTUapp aplikazioaren bidez egingo da. Informazio gehiago eta izena emateko: www.getxoenpresa.com eta info@getxoenpresa.com





Euskara Saria 2026 Arantza Martinez Erostarberentzat

Arantza Martinez Erostarbe getxotarrak jasoko du aurten Argia Ereiten Euskara Saria 2026, bai lan ibilbidean (irakaskuntzan) bai bere eguneroko bizitzan etengabe euskararen erabilera bultzatzeagatik. Euskararen sustatze lana aitortzen duen XVII. edizioaren sari emate-ekitaldia Muxikebarrin izango da abenduaren 2an, 19:00etatik aurrera. Saria sorpresa bat izan da getxotarrarentzat, eta poza eta emozio handiz jasoko du, "*ohore bat delako niretzat, oso harro nago eta nigan sinistu dutenei eskerrak ematen dizkiet*".

Auzokide honek lan bizitza Trinitarias ikastetxean eman du eta bertan B eredua bultzatzen parte hartu zuen oztopoz betetako ibilbide batean, "*irakasleen jarrerak eta txipa aldatzeko; materialak sortzeko eta gurasoen inplikazioa eskatzeko lan egin behar izan genuelako*". Bestalde, bere bizitza pertsonalean eragile aktibo da udalerriko kultur bizitza eta euskararen aldeko ekitaldiak sustatzen. "*Uste dut oso garrantzitsua dela lehen hitza beti euskaraz esatea, esamoldeak erabiltzea, ohitura sortzea, egunero keinuak egitea, pozik, poliki eta gelditu gabe*", amaitu du aurtengo Euskara saridunak.

Jarduerak Sunu Buga Bugaren alde

Sunu Buga Buga GKEak, Ana Lara Dantza Eskolarekin elkarlanean, bi ekimen solidario antolatu ditu *Fair Saturday* ekimenaren barruan.

Ostiralean, hilak 20, afari solidario bat izango da, zuzeneko musikarekin, Algortako Kasinoan eta prezioa 30 eurokoa izango da. Tiketak Kasinoan eta Gaviria harategian eros ditzakete interesatuek.

Bestalde, azaroaren 28an, larunbatean, dantza klase batzuk antolatu dituzte, modalitate desberdinetan Dantza Eskolan bertan. 10:00etatik 10:45era *Barré Sculpt* izango da; 11:00etatik 11:45era *Jazz dantza garaikidea*, eta 12:00etatik 12:45era *Barré Stretching*. Modalitate bakoitzeko gutxieneko ekarpena 8 euro izango da eta pertsona interesatuek 605713616 telefono zenbakira deitu beharko dute izena emateko. Bilduta-koa Sunu Bugu Buga GKEarentzat izango da.



Sarrerak agortuta "La importancia de llamarse Ernesto" lanarentzat

Compañía Joven Sin Remilgos taldeak agortu egin ditu larunbatean, hilak 21, 19:00etan Muxikebarrin *La importancia de llamarse Ernesto* antzezlana ikusteko sarrerak. Unai Baigesek zuzendu du eta Julen del Solar, Ethan Cajigas, Lur Jorrin, Naia Pombo, Mayla Lopez, Lur Lovelly, Eneko Sancho eta Igor Angulok antzezten dute. Komedia bikaina, eta harrigarria bada ere, gaur egungoa, itxurek dena baldintzatzen duten mundu bati buruz hitz egiten duena.



"Promesarik txikiena", umorea, emozioa eta zuzeneko musika

Ostiralean, hilak 20, 20:00etan, Infinitu drama konpainiak *Promesarik txikiena* antzeztuko du Muxikebarrin, euskaraz. Lau lagun eszenatokian elkartzen direnean hasten da dena, elkartzen dituzten loturak, itxaropenak eta etsipenak ospatzeko. Umorearen, emozioaren eta konplizitatearen artean, proposamen honek jolas eszeniko batean parte hartzera gonbidatzen gaitu, adiskidetasunari, afektuei eta gure harremanei eusten dieten keinu txikien balioari buruz hausnartzeko. Sarrerak 15 euro balio du.



"Arantzarik gabeko arrosa", nerabeen amodiozko eta euskal kulturako eleberri bat, errealismo magikoko ikutuekin

Oihane Amantegi Escribano idazle eta abeslariak *Arantzarik gabeko arrosa* eleberria aurkeztu berri du Algortako Kultur Etxean. Egileak berak gaztaroan jasan zuen abusu esperientzia batean oinarrituta, Ihintza rap abeslari gaztearen bizipenak kontatzen ditu. Obrak nerabeen maitasuna, euskal kultura eta errealismo magikoko elementuak elkartzen ditu. Unai Gonzalez Martinez arduratu da liburuaren ilustrazioaz eta diseinuaz.



"Fly me to the moon", clown eta zirku ikuskizuna familia osoarentzat

Igandean, hilak 22, 18:00etan, Leandre Clown konpainiak *Fly me to the moon* ikuskizuna aurkeztuko du Muxikebarrin. Familia osoarentzako proposamena da, eta bi pailazok ilargira doan bizikleta tandem hegalari batean egindako bidaia poetikoa kontatzen du. Ametsaren eta errealitatearen, hitzik gabeko umorearen, poesia bisualaren eta irudimenaren artean, ikuslego guztiarentzako ikuskizun bat dago, mundua haurtzaroko begiekin begiratzera gonbidatzen duena. Sarrera: 10 euro.





Klubarentzat antolaketa erronka nabarmena izango dena irailaren 17tik 19ra jokatuko da

Raspasek antolatuko du berriro Espainiako Itsasoko Arraun Txapelketa, 2027an

Getxok, Areetak, hartuko du berriro Espainiako Itsasoko Arraun Txapelketa 2027an, irailaren 17tik 19ra, Espainiako Arraun Federazioak jakitera eman duenez. Raspas del Embarcadero Klubak antolatuko du txapelketa, hain zuzen ere, eta kadete, gazte, absolutu eta beterano kategoriak barne hartuko ditu. Bigarren aldia izango da Raspasek estatuko lehiaketa horren antolaketa bere gain hartzen duena, 2024ko abuztuan udalerrian ere egin baitzen.

Itsasoko arrauna ur irekietan egiten den modalitate bat da, eta arraun olinpiko tradizionalaren ezaugarri desberdinak ditu. Itsasoko arraunean, ontziek inguruko baldintza aldakorrei aurre egin behar diete, hala nola olatuei, haizeari eta korronteei, buiek mugatutako zirkuituetan. Erresistentzia, teknika eta ingurunera egokitzeko gaitasuna uztartzen dituen diziplina da, eta azken urteetan hazkunde nabarmena izan du.

Klubeko lehendakari Mikel Baturenen ustez, izendapena aitorpen garrantzitsua da, baina baita antolaketa erronka nabarmena ere. "*Sekulako erronka da gurea bezalako klub apal batentzat. Horrelako txapelketa bat antolatzeak ahalegin handia eskatzen du giza aldetik, teknikoki eta logistikoki, baina, era berean, poztasun handia eta Getxo eta gure urak Estatu osoko klub eta kirolariei erakusteko aukera ere bada. Erronka berri honi ilusio handiarekin eta lehiaketaren mailan egoteko konpromisoarekin egingo diogu aurre*".

Txapelketa honen antolaketa une bereziki nabarmenean iritsi da Raspas Arraunen kirol ibilbiderako, izan ere, azken urteetan itsasoko arraunaren aldeko apustua indartu du eta kirol emaitza garrantzitsuak lortu ditu. Aldi berean, oraingo hitzordu hau aukera bat izango da Getxo estatuko arraunaren txapelketa handien egutegian berriro kokatzeko.

Show Getxok munduko errekor bat ospatuko du

Getxo Show Irristaketa Klubak patinen gaineko giza tren-makina birtual luzeenaren munduko errekorra ospatuko du igande honetan, hilak 22. 26 herrialdetako 4.672 parte-hartzaile bildu dituen nazioarteko ekimen honek 3,74 kilometroko luzera lortu du.

Topaketa Fadurako TikiTokin izango da, 18:10etik aurrera, eta kirolariekin, familiekin eta kirol arloko ordezkariekin aitorpen hori partekatzeko balioko du. Klubak munduko marka horretan parte hartu du, hainbat herrialdetako eskola eta patinaje erakundeekin batera.

Claudia Vazquez entrenatzaile kolonbiarrak sustatutako nazioarteko deialdi birtual baten bidez lortu zen errekorra.

Eguen Fisher errugbilaria Europako txapeldun da

Aviron Bayonnais taldeko Eguen Fisher jokalari getxotarra txapelduna izan da Espainiako errugbi selekzioarekin 18 urtez azpiko Europako Txapelketan. Estatuko taldeak 23-17 irabazi zion Georgiari joan den larunbatean, hilaren 14an, Txekiar Errepublikan jokatutako finalean. Fisher titular izan zen finalean, eta horrela estreinatu du bere nazioarteko palmaresa.





Eskubeltz, herrian errotutako proiektua

Algortako Eskubeltz scout taldeak bere 35. urteurrenaren ospakizuna itxi zuen joan den larunbatean, hilak 14, arratsaldean, Fadurako TikiTokin ospatu zen jai giroko jardunaldiarekin. Ekitaldian udalerriko hainbat aditu eta gizarte- eta hezkuntza-erakunde bildu ziren, eta hezkuntzako aisialdiak gizartea eraldatzen, gizartea gehiago kohesionatzen eta komunitate-loturak sendotzen nola laguntzen duen aztertu zuten. Ekitaldia urteurrena ospatzeko propio konposatutako kanta baten aurkezpenarekin amaitu zen, eta Eskubeltzek bere ibilbidearen eta udalerriaren garapen komunitarioaren alde egindako lanaren aitortza jaso zuen, 8 eta 18 urte bitarteko pertsonak aisialdian heziz.



BBK Mendi Martxak irteera bat egingo da Getxon

Getxo BBK Mendi Martxak 2026 ekimenaren zazpigarren irteeraren agertoki izango da igande honetan, hilak 22, Bizkaiko Mendi Federazioak eta Getxoko Ibilki klub inklusiboak antolatutako mendi-ibilien ekimena. Ibilaldiak Munarrikolanda ingurua zeharkatuko du, 14,3 kilometroko ibilbide zirkularrarekin eta 9:00etan egingo da irteera, Fadurako Tiki Tokitik. Jarduerak Getxoko Etorkinen Plataformaren eta San Nikolas Zabaliken laguntza izango du, eta Ibilkirekin batera parte hartuko dute, dimentsio inklusiboa eta kulturartekoa txertatuz. Martxa honetan 450-500 pertsonak baino ez dute parte hartuko, mendia masifikatzea saihesteko, ingurumenaren mesedetan.